

# ALI BABA ETA 40 LAPURRAK



LH 4.MAILA

## ALI BABA ETA 40 LAPURRAK

Duela urte asko, basamortu zabalen lurraldean, bi anaia bizi ziren. Biak berdinderdinak ziren gorpuzkeraz; bizkar zabala, beso indartsuak eta hanka sendoak. Adinez ere berdintsuak ziren, eta aurpegiz nahiko atseginak.

Hala ere, bi anaiak ez ziren erabat berdinarak. Kasimek, zaharrenak, umore txarreko joera zuen, eta nahiko diruzalea zen. Ali Baba gaztea, aldiz, alaia eta **eskuzabala** zen erabat.

Kasim emakume dirudun batekin ezkondu eta aberatsen bizitza zeraman. Ali Babak, ordea, ez zeukan ezer, bere alaitasuna besterik, eta armiarmak baino pobreagoa zen. Bizitza ateratzeko basamortuaren ertzeraino joan ohi zen egurra biltzera.

Egun batean, egur egiten ari zela, berrogei gizon, berrogei mando beltzen gainean etorri ziren haren inguruetara.

Ezkutatu zen Ali Baba, eta ikusi zuen gizon haiek harkaitz handi baten aurrean gelditu zirela. Buruzagiak oihu egin zuen:

—Sesamo, ireki zaitetz!

Eta harkaitza zabaldu egin zen haitzulo baten ahoa bezala.

Gizonak barrura sartu ziren, baina Ali Baba ezkutuan geratu zen, beldurtuta, haitza berriro ireki eta gizonak atera ziren arte.

Berrogei gizon haiek beren mandoen gainean joan zirenean, Ali Baba harkaitzera hurbildu eta esan zuen:

—Sesamo, ireki zaitetz!

Eta haitza zabaldu egin zen, eta Ali Baba barrura sartu.

Gizon lapur haiek han pilatuta zeukaten altxorra ikusgarria zen!

Gehien balio zuena eta gutxien pisatzen zuena hartu eta altxor harekin itzuli zen etxera.

Kasim eta bere emaztea berehala konturatu ziren Ali Babak altxor bat zeukala.

—Nola lortu duzu altxor hori? —galdetu zion Kasimek Ali Babari.



Eta Ali Babak lapurren ezkutalekuan gertatutako guztia kontatu zion anaiari. Hurrengo egunean, Kasimek hamar mando hartu eta lapurren ezkutalekura joan zen.

—Anaia baino aberatsagoa izan nahi dut —esan zuen **bekaizkeriaz** beteta.

Lapurren haitzuloko sarrerara iritsi zenean, esan zuen:

—Sesamo, ireki zaitetz!

Ireki zen haitza, sartu zen Kasim barrura eta altxor hartako urrez eta bitxiz bete zituen mandoen **bastak**. Baina...irtetera zihoanean, ahaztu egin zitzaizkion hitz magikoak, eta zuloan preso geratu zen.

Irten ezinik, urduri eta hitz magikoak gero eta ahaztuago zituela, lapurrak iritsi ziren eta barruan harrapatu zuten.

—Hil ezazue oraintxe bertan! —agindu zuen buruzagiak.

Hantxe bertan hil zuten. Gero, burua moztu eta haitzuloaren sarrera gainean zintzilika utzi zuten.

Gau hartan Kasimen andrea Ali Babaren etxera joan zen, oso kezkatuta.

Ali Babak, lapurren altxorra eskuratu zuenean, neskame bat hartu zuen etxean laguntzeko. Neskatila gaztea zen, begi handiak zituen, eta sudur motza. Benetan neska ederra zen Martxana neskamea. Ederra eta buru azkarrekoa.

—Zer nahi duzu, anderea? —galdetu zion Martxanak Kasimen andreari.

—Zure nagusiarekin hitz egin nahi dut —esan zion kopeta ilunarekin.

Martxanak Ali Babarengana eraman zuen.

—Zuk ezagutzen duzun haitzulora joan da Kasim gaur goizean —esan zion Kasimen andreak Ali Babari —,eta oraindik ez da itzuli.

—Nahi baduzu, bihar goizean Kasimen bila joango naiz —esan zion Ali Babak koinatari.


Joan zen, eta anaia hilda aurkitu zuen haitzuloan. Zeharo penatuta, Ali Babak bere etxera ekarri zuen gorpua, behar bezala lurperatzeko.

Kasim nola hil zen inork jakin zedin Martxana kalera joan zen, eta jende guztiari esan zion:



—Kasim oso gaixo dago! Hilzorian dago!

Gero, botikak erosi zituen, eta baita jostun baten etxera joan ere. Jostunak, ilunpetan eta hari sendo batekin, burua josi zion Kasimen gorputzari. Jostuna joan eta Martxanak, hildakoa lepo handiko alkandora luze batekin jantzi zuen, eta negarrez hasi zen.



—Kasim hil da! Kasim hil da! —egiten zuen deiadar.

Herriko jendeak pentsatu zuen gaixotasunarengatik hil zela Kasim, eta inork beste ezer **sumatu** gabe **ehortzi** zuten.

Handik denbora batera, lapurrak haitzulora itzuli ziren, eta ikusi zuten hildakoa ez zegoela han.

—Norbait ibili da hemen —esan zuen buruzagiak—. Eta badaki haitzuloa irekitzen. Zoazte inguruko herri guztietara, eta ikusi nor den gure sekretua ezagutzen duena! Neuk **akabatuko** zaituztet bestela!

Joan ziren lapurrak inguruko herrietara, eta haietako batek ikusi zuen jostun bat oso argi gutxirekin lanean ari zela.

—Begiak nekatuko zaizkizu hain argi gutxirekin —esan zion lapurrak jostunari.

—Tira! Zer diozu? Nik ez dut argirik behar josteko... Lehengoan ilunpetan josi nion lepoa hildako bati eta primeran utzi nuen.

—Joste lan hori zein etxetan egin zenuen esaten badidazu, urrezko txanpon bat emango dizut —esan zion lapurrak jostunari.

Jostunak Ali Babaren etxea zein zen erakutsi zion eta lapurrak, gero, gurutze gorri bat margotu zuen Ali Babaren etxeko atean.

Hurrengo goizean goiz, Martxanak ateko gurutzea ikusi eta norbaitek nagusiarri kalte egin nahi ziola pentsatu zuen. Horregatik antzeko gurutzeak margotu zituen inguruko etxe guztietan.

Bitartean, berrogei lapurrak buruzagiarekin elkartu ziren haitzulo barruan.

—Gurutze gorri batekin markatu dut gure sekretua dakien gizonaren etxea—  
esan zuen lapurretako batek.

—Hassan eta Abd Ala! Joan zaitetze etxe horretara eta akaba ezazue gizon hori  
—esan zien buruzagiak bi lapurri.

Gauaren erdian ez zen erraz gurutze gorria ikusten.

—Aurkitu dut atea! —esan zuen batek.

—Hemen ere gurutzea dago! —esan zuen besteak.

—Eta beste bi haietan ere bai! —esan zuten biek batera.

Ezin izan zuten Ali Babaren etxea aurkitu! Haitzulora itzuli eta gertatu zitzaiena kontatu zieten beste guztiei.

—Neuk egin behar al dut dena? —galdetu zuen buruzagiak haserre.

Mozorrotu zen merkatari bezala, joan zen jostunarengana eta galdetu zion non egin zuen ilunpetako joste-lana. Gauean, hogeita bat mandorekin joan zen Ali Babaren etxera lapurren buruzagi mozorrotua. **Mando** bakoitzean bi olio-ontzi handi zeuden, eta olio-ontzietan ezkutatuta, lapurrak, azken mandoan izan ezik.

Buruzagiak eskatu zion Ali Babari:

—Zure etxean gaua pasatzeko baimena emango al didazu?

Eta Ali Baba eskuzabalak:

—Nire etxea zure etxea da, jauna!

Afalondoren, lapurren buruzagia kanpora atera zen, mandoei ura eman behar ziela esanez, eta ontzietan gordetako gizonei esan zien:

—Nik abisatzen dizuedanean, irten ontzietatik, sartu etxera eta hil etxeke guztiak.

Martxana janaria prestatzen zegoen eta oliorik gabe geratu zen.

—Merkatarien ontzietatik hartuko dut —pentsatu zuen.

Joan zen ontzi batera, eta ahots batek esan zion:

—Ordua al da nagusi?

—Ez, oraindik ez! erantzun zion Martxana azkarrak.



Eta horrelaxe, Martxana berehala konturatu zen nolako tranpa zeukaten pentsatuta lapurrek. Hartu zuen olio azkeneko bi ontzietatik, berotu zuen eta lapurrei bota zien gainetik. Denak **kiskalita** utzi zituen.

Lapurren buruzagiak bere gizonen abisu eman zienean, ez zen inor mugitu. Gizon guztiak hilda ikusi zituenean, erabat ikaratuta, pareta gainetik salto egin eta ihesi joan zen.

Ali Baba ere harrituta geratu zen merkataria desagertu eta mandoak etxeko patioan ikusi zituenean. Martxanak kontatu zion gertatutako guztia.

—Bigarren aldiz bizia zor dizut —esan zion Ali Babak Martxanari—. Oso pozik nago zurekin, nahi ez baduzu ez duzu nire neskame izan beharrik.

Bien artean lapurrak lurperatu eta mandoak saldu zituzten, eta denbora batean ez zuten kezkarik izan. Denboraldi baten ondoren, ordea, lapurren buruzagiak **lurrin-denda** txiki bat jarri zuen herrian, eta oso atsegina zenez, Ali Babak etxera gonbidatu zuen.

—Oraingo honetan nik emango dizut merezi duzuna! —pentsatu zuen lapurren buruzagiak.

Martxanak ezagutu nahi zuen nor zen lurrinak saltzen zituen merkatari hura, eta begiratzera joan zen bi gizonak afaltzen ari ziren lekura. Berehala konturatu zen lapurren buruzagia zela.

Martxana dantzariz jantzi eta dantza egin zuen bi gizonen aurrean. Merkatariak, **txundituta** urrezko txanpon bat eskaini zion. Txanpona jasotzera balihoa bezala hurbildu zitzaion Martxana lapurrari, eta eskuan zeukan sastakaia sartu zion bihotzean.


—Erotu egin al zara? —galdetu zion Ali Babak—. Zergatik egin duzu hori?

—Gizon hori zen lapurren buruzagia! —erantzun zion Martxanak.

Orduan Ali Baba konturatatu zen Martxanak, berriz, bizia salbatu ziola.

*Eta hala izan ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila gure herriko plazan...*

Ipuin arabiarra, J. M. Olaizola "Txiliku"-k moldatua.



DATA: \_\_\_\_\_

IZENA: \_\_\_\_\_

## ARIKETAK

### IRAKURRI AURRETIK

#### Erantzun galdera hauei:

❖ Ezaguna egiten zaizu izenburua? Zer dakizu ipuin honi buruz?.....

.....  
.....

❖ Izenburuari bakarrik erreparatuz, zer uste duzu gerta daitekeela?.....

.....  
.....

❖ Ezagutzen duzu ipuin arabiarren bat? Zein?.....

.....  
.....



### IRAKURRI ONDOREN

#### Erantzun galdera hauei:

1. Zertan ziren berdinak bi anaiak? Eta zertan desberdinak?.....

.....  
.....

2. Egun batean, Ali Baba egur egiten ari zela, zer gertatu zen?.....

.....

3. Gizon haiek joan zirenean, zer egin zuen Ali Babak?.....

.....

.....

4. Zergatik joan zen Kasim hurrengo egunean haitzulora?.....

.....

5. Zer iritzi duzu Kasimen portaeraz? Eta haren bekaizkeriaz?.....

.....

.....

6. Zer egin zuen Ali Babak eskuratutako altxorarekin?.....

.....

7. Zer egin zuen Martxanak Kasimi benetan gertatutakoa ezkutatzeko?.....

.....

.....

8. Nola jakin zuen lapurrak Ali Babak ezagutzen zuela sekretua?.....

.....

.....

9. Zer egin zuen Martxanak Ali Babaren etxeko atean gurutzea ikusi zuenean?.....

.....

10. Zertaz mozorrotu zen lapurra Ali Baba hiltzera joan zenean?.....

.....

11. Zer egin zuen Martxanak, bigarren aldian, Ali Babari laguntzeko?.....

.....

.....

12. Zergatik hil zuen Martxanak lurrin-dendako dendaria?.....

.....




Ingura ezazu ipuinean agertzen diren hitz hauen esanahi egokia:

- |                  |                |                  |              |
|------------------|----------------|------------------|--------------|
| 1. Eskuzabal:    | esku handia    | eskua oso zabala | emankorra    |
| 2. Bekaizkeria:  | bekaina zikina | inbidia          | maltzurkeria |
| 3. Basta:        | nahikoa da!    | arbalda          | baldarra     |
| 4. Sumatu:       | susmoa izan    | gehitu           | sumoan aritu |
| 5. Ehortzi:      | lehortu        | erori            | lurperatu    |
| 6. Kiskalita:    | erreta         | kristalez beteta | lotsatuta    |
| 7. Lurrin-denda: | lurrun asko    | perfumeria       | lur-denda    |
| 8. Txundituta:   | liluratuta     | beldurtuta       | harrituta    |

ARIKETA OSAGARRIAK

Pertsonaia hauen deskribapena kontuan harturik, marraz itzazu:

ALI BABA



MARTXANA



**IRUDIAK:**

- <https://commons.wikimedia.org>

**BIBLIOGRAFIA:**

- ZENBAITEN ARTEAN: *LH 4 Txanela Irakurgaiak*, Elkar, Donostia, 2003.

EGILEA: LEIRE ILINCHETA

2015